

**2006KO URTARRILAREN 25EKO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 25 DE ENERO DE 2006**

Akta zenbakia: 2/2006
Bilera data: 2006-01-25
Bilera mota: Ohiko osoko bilkura
Deialdia: Lehenengoa
Ordua: 16:30 – 16:55
Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Acta nº: 2/2006
Fecha: 25-01-2006
Tipo de reunión: Pleno ordinario
Convocatoria: Primera
Hora: 16:30 – 16:55
Lugar: Salón de plenos del Ayuntamiento

Bertaratutakoak:**Alkatea:** Florentino Ugalde Atxaga**Zinegotziak:**

Maria Isabel Vaquero Montero
 Jose Luis Aramendi Goikoetxea
 Jose Maria Aldanondo Ugalde
 Maria Angeles Iriondo Mugica
 Gaspar Esnaola Agesta
 Hermenegildo Gonzalez Moran
 Consuelo Frutos González
 Jose Guirado Novo
 Jose Maria Mugica Heras
 Juan Maria Tomasena Alzuri
 M. Asuncion Guerra Alonso

Reunidos:**Alcalde:** Florentino Ugalde Atxaga**Concejales:**

Maria Isabel Vaquero Montero
 José Luis Aramendi Goikoetxea
 Jose Maria Aldanondo Ugalde
 Maria Ángeles Iriondo Múgica
 Gaspar Esnaola Agesta
 Hermenegildo González Morán
 Consuelo Frutos González
 José Guirado Novo
 Jose Maria Mugica Heras
 Juan Maria Tomasena Alzuri
 M. Asuncion Guerra Alonso

Euren ezin etorria adierazi ez dutenak:

M. Teresa Pagazaurtundua Ruiz

Ausentes, que no se han excusado:M^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz**Bitarteko idazkaria:**

Beatriz Garate Cortabarría

Secretaria interina:


Beatriz Garate Cortabarría

Aztergaiak:

- 1.- 2005eko azaroaren 7, 28 eta 30eko aktak eta abenduaren 21ekoa onartzea.
- 2.- Alkatetzako eta Herriko Gobernu Batzarreko ebazpenen berri ematea.
- 3.- Ezintasunaren Europako Egunaren harira PPK aurkeztutako mozioa.
- 4.- Galde-eskeak.

Orden del día:

- 1.- Aprobación, si procede, de las actas de 7, 28 y 30 de noviembre y 21 de diciembre de 2005.
- 2.- Conocimiento de resoluciones de Alcaldía y de la Junta de Gobierno Local.
- 3.- Moción presentada por el PP, sobre el Día Europeo de la Discapacidad.
- 4.- Ruegos y preguntas.



2006KO URTARRILAREN 25EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 25 DE ENERO DE 2006

1.- 2005eko azaroaren 7, 28 eta 30eko aktak eta abenduaren 21ekoa onartzea.

Alkateak lehenengo gaia aurkeztu du, eta esan du 2005eko azaroaren 7, 28 eta 30eko aktak eta abenduaren 21ekoa onartu behar dituztela; era berean galdetu du ea inork baduen ezer esateko honen inguruan.

Ez da eztabaidarik izan, eta Udalbatzak aho batez onartu ditu 2005eko azaroaren 7, 28 eta 30eko aktak eta abenduaren 21ekoa.

2.- Alkatezako eta Herriko Gobernu Batzarreko ebazpenen berri ematea.

2005eko azaroaren 24tik 2006ko urtarrilaren 18ra bitarteko Alkatezako dekretuen berri eman zaie udal batzarkideei, deialdiarekin batera banatutakoena.

Era berean, 2005eko azaroaren 7an eta 21ean eta 2005eko abenduaren 12an eta 21ean Herriko Gobernu Batzarrak egindako bilkuren akten berri eman zaie udalbatzarkideei. Beraz, jakinaren gainean geratu dira.

PSE-EEko zinegotzi Hermenegildo Gonzalez Moranek eskatu du hitza, eta adierazi du 2005eko abenduaren 12an Herriko Gobernu Batzarrak egindako bileraren aktan proposamen bat agertzen dela senitartekoak bisitatzeko garraiorako diru laguntzak emateko (hilean bidaia bat diruz laguntzea, txartela ordainduta; 132 euro kostatzen da txartela), eta galdetu du zein kontu-saili lotuta dagoen diru laguntza hori. Alkateak erantzun dio orain ez dakiela eta galdetu egin beharko lukeela. Zinegotzi sozialistak eskatu dio jakinaren gainean jar dezala.

1.- Aprobación, si procede, de las actas de 7, 28 y 30 de noviembre y 21 de diciembre de 2005.

El alcalde ha presentado este punto señalando que hay que aprobar las actas del 7, 28 y 30 de noviembre y 21 de diciembre de 2005; asimismo, ha preguntado si alguien tiene algo que comentar a este respecto.


No se ha producido ninguna discusión, y el Pleno ha aprobado de forma unánime las actas de las sesiones plenarias celebradas el 7, 28 y 30 de noviembre y 21 de diciembre de 2005.

2.- Conocimiento de resoluciones de Alcaldía y de la Junta de Gobierno Local.

Se ha dado cuenta a los miembros de la Corporación de los decretos de Alcaldía emitidos desde el 24 de noviembre de 2005 al 18 de enero de 2006, y que se han enviado junto con la convocatoria.

Asimismo, se ha dado cuenta a los miembros de la Corporación de las actas de las sesiones celebradas por la Junta de Gobierno Local el 7 y 21 de noviembre de 2005 y 12 y 21 de diciembre de 2005, de modo que han quedado informados.

Ha solicitado la palabra el concejal del PSE-EE, Hermenegildo González Morán para preguntar, con respecto al acta de la Junta de Gobierno Local celebrada el 12 de diciembre de 2005, en la que aparece una propuesta de concesión de ayuda para desplazamientos para visitar a familiares (subvencionar un viaje al mes, abonando el importe del billete, que asciende a 132 euros), a qué partida está vinculada dicha subvención. Responde el Alcalde que en ese momento no lo sabe y que tendría que preguntar; el concejal socialista solicita que se le notifique.



2006KO URTARRILAREN 25EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 25 DE ENERO DE 2006

Gero, PPko zinegotzi M. Asuncion Guerra Alonsok eskatu du hitza, eta zinegotzi sozialistak aipatutako laguntza horren gainean galdetu du non dagoen bisitatzen duten pertsona hori eta etakide bat al den. Alkateak erantzun dio Gizarte Ongizateko espedienteetan ez dutela izenik erabiltzen, espediente zenbakia baizik, baina pertsona hori berak uste duena bada Parisen dagoela. Zinegotziak galdetu du ba ote dakiten laguntza nori eman zaion, emazteari edo bikotekideari, ezkondua dauden edo legezko bikotea diren edo bakar-bakarrik elkarrekin bizi ziren. Gizarte Ongizateko zinegotziak erantzun dio legezko izatezko bikote direla. Gero, M. Asuncion Guerra Alonsok eskatu du aktan jaso dadila PP ez dagoela ados espazio publiko bat EHNA lortzeko tramiteak egiteko uztearekin; izan ere, uste dute hori ez dela dokumentu publiko ofiziala eta udal espazioak horretarako erabiltzearen kontra daude.

Ha solicitado después la palabra la concejal del PP, M^a Asuncion Guerra Alonso para preguntar, con relación a la concesión de la ayuda que ha comentado el concejal socialista, dónde está esta persona que van a visitar y si el mismo es un etarra. El Alcalde ha respondido que los expedientes de Bienestar Social no se tratan nominalmente, sino por número de expediente, pero si esa persona es quién él piensa se encuentra en Paris. Pregunta la concejal si saben a quién se ha concedido la ayuda, si a la mujer o a la pareja, si están casados o es pareja legal o sólo de convivencia. Responde la concejal de Bienestar Social que es pareja de hecho legalmente constituida. Después M^a Asuncion Guerra Alonso ha solicitado que conste en acta la disconformidad del PP por la concesión para la utilización de un espacio público para tramitar la obtención del EHNA, ya que consideran que el mismo no es documento público oficial y están en contra de que se utilicen los espacios públicos municipales para esto.

3.- Pertsona Ezgaituen Europako Egunaren harira PPK aurkeztutako mozioa.

Alkateak hitza eman dio PPko zinegotziari, gaia azal dezan. PPko zinegotzi M. Asuncion Guerra Alonsok esan du denbora pasatu dela mozioa aurkeztu zuenetik eta Pertsona Ezgaituen Europako Eguna pasatu dela. Esan du mozioa aseztiko samarra dela eta ez dutela ezer berezirik eskatzen; baten batek argibideren bat nahi badu, erantzungo dio, baina uste du ez dagoela azaltzeko gauza handirik; soil-soilik nabarmendu nahi du udaletxeak ez dituela betetzen irisgarritasunaren legeak, nahiz eta hori etxearen beraren arazoengatik izan; bestalde, esan du irisgarritasunaren arazoa konpontzen saiatu behar luketela, ahal duten neurrian, jende ezgaituarentzat. Alkateak erantzun dio ahaleginak egin dituztela beste eraikinera hainbat zerbitzu pasatzen, bere momentuan udaletxean

3.- Moción presentada por el PP, sobre el Día Europeo de la Discapacidad.

El Alcalde ha cedido la palabra a la concejal del PP para que exponga el tema. La concejal del PP, M^a Asuncion Guerra Alonso ha dicho que desde que presentó la moción hasta ahora ha pasado tiempo y que el Día Europeo de la Discapacidad ya ha pasado. Ha expuesto que la moción es bastante aséptica y que no solicitan nada especial; si alguien solicita alguna aclaración lo contestará, aunque considera que no hay mucho que explicar, salvo recalcar que este ayuntamiento no es un edificio que respete las leyes de accesibilidad, aunque ello es debido a los propios problemas del edificio y por otra parte, tratar de solucionar en la manera de lo posible los problemas de accesibilidad para la gente discapacitada. El alcalde le ha contestado que han hecho lo posible en pasar algunos



**2006KO URTARRILAREN 25EKO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 25 DE ENERO DE 2006**

egin beharko direla eginbeharrekoak.

Hermenegildo Gonzalez Moran zinegotzi sozialistak M. Asuncion Guerra Alonsori galdetu dio ba ote dagoen horri buruzko lege edo akordiorik Aldundiaren eta udalen artean. Berak erantzun dio badagoela Irisgarritasunaren Lege bat, baina kasu honetan, eraikin publikoetarako, ez dela betetzen; izan ere, etxea oso zaharra da, eta legea betetzeko osorik bota beharko litzateke; beraz, pixkanaka-pixkanaka konpontzen saiatu behar dute, hala nola, alkateak esan duen moduan, hainbat zerbitzu eraikin berrira pasatuta.

Alkateak galdetu du inork ezer eranstekorik ba ote duen, eta gero mozioa bozkatzea proposatu du; emaitza hau izan du:

Alde: 12 (6 EAJ-EA, 4 PSE-EE, 1 PP, 1 EB).

Kontra: 0

Abstentzioak: 0

Ikusirik PPk Pertsona Ezgaituen Europako Egunaren harira aurkeztu duen mozioa.

Botazioaren ondoren, Udalbatzak kideen gehiengo absolutuarekin hartu du honako

AKORDIOA

Lehenengoa eta bakarra.- PPko udal taldeak aurkeztu duen mozioa onartzea, akta honetako eranskinaren arabera, zeina espedientean jasota baitago.

servicios al edificio nuevo y que en su momento habrá que efectuar en el ayuntamiento las modificaciones necesarias.

El concejal socialista Hermenegildo González Morán pregunta a M^a Asuncion Guerra Alonso si no hay una ley o un acuerdo entre Diputación y los ayuntamientos relacionado con esto, a lo que ella responde que hay una Ley de Accesibilidad pero que en este caso, para edificios públicos, no se cumple, ya que el edificio es muy antiguo y para poder cumplir habría que tirarlo entero; entonces hay que tratar de solucionar poco a poco, como es el caso que ha comentado el Alcalde de que se han pasado ya algunos servicios al edificio nuevo.

El Alcalde ha preguntado si alguien quiere añadir algo más y después ha sometido la moción a votación, con el siguiente resultado:

A favor: 12 (6 PNV-EA, 4 PSE-EE, 1 PP, 1 IU).

En contra: 0

Abstenciones: 0

Vista la moción presentada por el PP, sobre el Día Europeo de la Discapacidad.

Tras la votación, el Pleno con el voto unánime de los miembros presentes, ha adoptado el siguiente

ACUERDO

Primero y único.- Aprobar la moción presentada por el grupo municipal del PP, según el anexo adjunto al acta, que consta ya en expediente.



2006KO URTARRILAREN 25EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 25 DE ENERO DE 2006

4.- Galde-eskeak.

Alkateak gainerako zinegotziei eman die hitza, nahi dutena galdetzeko.

EBko zinegotzi Juan M. Tomasena Alzurik hartu du hitza, eta esan du hiru galdera dauzkala egiteko. Lehenengoa Zelaialde kaleko 7. zenbakiko lokalen gainekoa da. Galdetu du kontu hori nola dagoen, ikertu al duten eta dena zuzen dagoen. Alkateak erantzun dio abenduaren 12an egindako Hirigintzako Informazio Batzordean eman zituztela horri buruzko informazio eta azalpen guztiak; adierazi du udaletxean aurkeztutako proiektuaren arabera egiten ari direla obra. Orduan, EBko zinegotziak galdetu du dena zuzena al den, eta alkateak baietz erantzun dio. Gero, Juan M. Tomasena Alzurik Goibitako zabortegeari buruz galdetu du, kamoi bat lurra botatzen ibili baita hor astelehenetik; jarduera hori itxi egin zuten, eta orain berriz ekin diotenez, galdetu du horretarako baimenik ba ote duten. Alkateak erantzun dio Goiburuko zabortegea gutxi gorabehera duela urte eta erdi itxi zutela, Konfederazio Hidrografikoaren baimena lortu bitartean. Esan du baimen hori duela hilabete batzuk lortu zutela, baina horrez gain Udalak hainbat baldintza jarri zizkiela jarduera hori egiteko, batez ere kamioien irteerari eta gorpilen garbitasunari dagokionez; halaber, abal bat aurkezteko eskatu zitzaien.

Ondoren, Juan M. Tomasena Langardako egoerari buruz galdetu du; esan du badakiela ez zela abalik egon obra horretarako, eta galdetu du zergatik ez zen abalik exijitu eta zer egiteko asmoa dagoen horren inguruan. Alkateak erantzun dio garai hartan ez zutela halako abalik eskatzen; esan du berak gogoan duen lehenengo abala San Juan kaleko 12, 14 eta 16. zenbakietarako eskatu zela; egia esan, garai

4.- Ruegos y preguntas.

El alcalde ha cedido la palabra al resto de los concejales para que pregunten lo que quieran.

Ha tomado la palabra el concejal de IU, Juan M^a Tomasena Alzuri para expresar que tiene tres preguntas. La primera es sobre la situación de los locales de Zelaialde 7, pregunta cómo está el tema, si se ha investigado y si es todo correcto. El Alcalde le responde que en la Comisión Informativa de Urbanismo celebrada el 12 de diciembre se dio toda la información y todas las explicaciones pertinentes en relación a ese tema; que están realizando la obra de acuerdo con el proyecto presentado en el Ayuntamiento. Entonces el concejal de IU pregunta si todo es correcto y el Alcalde le responde afirmativamente. Después Juan M^a Tomasena Alzuri ha preguntado sobre el vertedero de Goibita, ya que un camión ha estado vertiendo tierra desde el lunes; dado que en su día se cerró la actividad y ahora la han reanudado, pregunta si tienen autorización para ello. El Alcalde responde que el vertedero de Goiburu se cerró, hace aproximadamente un año y medio, hasta que tuvieran la autorización de la Confederación Hidrográfica; dice que obtuvieron dicha autorización hace meses, pero además el Ayuntamiento les había impuesto unas condiciones para ejercer la actividad, sobre todo con respecto a la salida de los camiones y la limpieza de las ruedas de los mismos; asimismo también se les exigió la presentación de un aval.

A continuación Juan M^a Tomasena pregunta por la situación de Langarda; dice que le consta que no hubo aval en esta obra y sus preguntas son: por qué no se exigió el mismo y cuáles son las actuaciones que se prevén en torno a este asunto. El Alcalde ha respondido que en aquel tiempo, no se exigían dichos avales; dice que el primer aval que él recuerda fue el de San Juan 12, 14 y 16; lo cierto es que en esa época no se

**2006KO URTARRILAREN 25EKO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 25 DE ENERO DE 2006**

hartan ez zuten abalik eskatzen. Gaur egun eskatzen dituzte normalean, eta azken jarduera guztietarako eskatu dituzte. Jarraitu du esanez orain arte urbanizazioa behar bezala bukatzeko eskatu zaiela; hain zuzen, azkeneko bilera duela hilabete inguru egin zuten, eta beste bat duela bi aste egitekoak ziren baina beste alderdikoak ez ziren aurkeztu. Udalaren iritziz, jarduera pare bat falta dira, ezinbestekoak, Udalak urbanizazioa hartzeko; bere asmoa da lau bat hilabete itxarotea, eta ezer konpontzen ez bada, auzibidera jo beharko dute, nahiz eta modu horretan inoiz amaituko ez den prozesu batean sartu. EBko zinegotziak esan du urbanizazioaz gain beste arazo bat ere badagoela, bakoitzak nahi duena egin baitu bere lur sailean, eta etengabe ari dira obrak egiten, hala nola, ataripeak etab. Alkateak esan du batzuek eskatu dituztela baimenak baina beste batzuek baimenik gabe egin dituztela obrak. Garaia iristean, obrak amaitzean, baimenik gabe egindako guztia legezatu beharko dute. EBko zinegotziak galdetu du ez al zaien erregularizaziorik egingo baldin eta hasierako proiektuari lotu ez bazaie. Alkateak erantzun dio egin daitekeela gaur egungo egoeraren proiektu bat, eta legezta badaiteke baimenak eta tasak ordaindu beharko dituztela; nolana ere, batzuek agian ez dute aukerarik izango legezatzeko, eta orduan hasieran zegoen bezala utzi beharko dute dena. Juan M. Tomasenak galdetu du urbanizazioarena konpontzen bada jabe bakoitzak bizigarritasun baimena eskatu beharko ote duen. Alkateak erantzun dio baietz, lur sail bakoitza independentea dela, ez dela gertatzen Vegasan bezala, ez daudela hirurogeita hamar etxebizitza bloke berean; hor hirurogeita hamasei etxebizitza badaude, udal teknikariak hirurogeita hamasei baimen eman beharko ditu, lur sail bakoitza independentea baita.

Gero, alkateak esan du azken udalbatzarrean esan bezala Aldundiari idatzi bat bidali diotela galdetuz nora botako dituzten Urkain-Berriko

solicitaban avales. Hoy en día se exigen normalmente y en todas las últimas actuaciones se ha exigido. Sigue diciendo que hasta la fecha lo que han hecho es requerirles para que completen la urbanización correctamente, que han tenido la última reunión hace aproximadamente un mes, que tenían otra hace dos semanas, pero la otra parte no se presentó. A entender del Ayuntamiento hay un par de actuaciones imprescindibles para que el Ayuntamiento recepcione la urbanización; su intención es, esperar unos cuatro meses, y si no se arregla nada deberán acudir a la vía judicial, aunque esto puede suponer entrar en un proceso que no acabe nunca. El concejal de IU expresa que, aparte de la urbanización, existe el problema de que cada uno ha hecho lo que ha querido en su parcela, que hay constantemente obras nuevas, como porches, etc. El Alcalde dice que algunos han solicitado las licencias pertinentes y otros en cambio han hecho obras sin licencia. En su momento, junto con el fin de obra deberán legalizar todo lo que se ha hecho sin licencia. El concejal de IU pregunta si no se les regularizará si no se adecuan al proyecto inicial. El Alcalde le responde que puede haber un proyecto de estado actual y si se puede legalizar deberán abonar las licencias y tasas; ahora bien, algunos igual no tienen posibilidad de legalizar y entonces tendrán que reponer a su estado originario. Pregunta Juan M^a Tomasena, en el supuesto de que lo de la urbanización se arregle, si cada uno de los propietarios tiene que solicitar el permiso de habitabilidad, a lo que el Alcalde responde afirmativamente, que cada parcela es independiente; no es como una actuación en Vegasa, que hay setenta viviendas en un bloque, si hay setenta y seis viviendas, tendrá que haber setenta y seis actuaciones por parte del técnico municipal, ya que cada parcela es independiente.

Después, el Alcalde ha dicho que tal y como se convino en el último Pleno ha realizado por escrito la consulta a Diputación sobre el

Urnietako Udala*Ayuntamiento de Urnieta**Gipuzkoa*

**2006KO URTARRILAREN 25EKO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 25 DE ENERO DE 2006**

saihesbidean sobratutako diren lurak. Errepideetako Zuzendaritza Nagusiak erantzun die esanez Urkain-Berri inguruan utziko dituztela saihesbidean sobratzen diren lurak. Alkateak Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepideetako Zuzendaritza Nagusiaren idatzia banatu dio udal taldeetako bakoitzari.


vertido de tierras sobrantes de la variante en Urkain-Berri y que han recibido la respuesta de la Dirección General de Carreteras diciendo que los sobrantes de la variante se depositarán en la zona de Urkain-Berri; el Alcalde ha procedido a repartir la comunicación de la Dirección General de Carreteras de la Diputación Foral de Gipuzkoa a cada uno de los grupos municipales.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du ohiz kanpoko udalbatzar hau, goian adierazitako egunean, arratsaldeko bostak bost gutxiagotan, eta nik, Urnietako bitarteko idazkariak, hala egiaztatu dut, alkatearen oniritziarekin.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo las cinco menos cinco del día indicado en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Stua.: Beatriz Garate Cortabarría
Bitarteko idazkaria,

Stua.: Florentino Ugalde Atxaga
Alkate-lehendakaria,



**2006KO URTARRILAREN 25EKO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 25 DE ENERO DE 2006**

ERANSKINA/ANEXO:

**UDALEKO ALDERDI POPULARRAREN
MOZIOA**

Udal honetako Alderdi Popularreko taldeak mozio hau aurkeztu du, abenduaren 13an Europan egingo den Pertsona Ezgaituen Aldeko Egunaren harira.

Pertsona ezgaituak (gizartearen %10) gizartean integratzeko hainbat aurrerapauso eman badira ere, areago joan behar dugu. Bestalde, kontuan hartuta Autonomia Pertsonalaren Legea ateratzekoa dela, udalek hartu beharko dute autonomia horri erantzuteko ardura handiena, erabiltzaileengandik gertuen dauden erakundeak diren aldetik.

Horregatik guztiagatik, Alderdi Popularreko udal taldeak akordio hauek hartzea proposatzen du:

1.- Udal honek konpromisoa hartzen du pertsona hauei erabat normalizatzen uzten ez dien mota guztietako oztupoak ezabatzeko politika pragmatikoago bat eramateko, betiere ezintasunen bat duten pertsonen ordezkari baimendunen aholkuak kontuan hartuta.

2.- Udal honek Gobernu Zentralari, Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen die behar beste diru kopuru eman dezatela egoera horri aurre egiteko.

3.- Udal honek Gobernuari eskatzen dio lehenbailehen aurkez dezala Diputatuen Biltzarrean autonomia pertsonalaren eta mendeko pertsonen babesaren gaineko lege proiektua, horretan oinarrituz gisa honetako egoeretan dauden pertsonen kasu egiteko sistema nazionala ezar dadin eta bermatuta egon dadin toki erakundeen parte-hartzea, nazioko Gobernuaren eta autonomia erkidegoen babesarekin.

MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL DEL PP:

El Grupo Municipal del Partido Popular en este Ayuntamiento presenta esta moción con motivo de la celebración el día 3 de diciembre del Día Europeo de la Discapacidad.

Aunque se han producido avances en la integración social de las Personas con Discapacidad (cerca del 10% de la sociedad), debemos ir más allá. Por otro lado, ante la próxima Ley de Autonomía Personal, los Ayuntamientos como entes más cercanos a los usuarios, tendrán que hacerse cargo en la mayor parte de la atención de esta autonomía.

Por todo ello, el Grupo Municipal del Partido Popular propone los siguientes acuerdos:

1.- Este Ayuntamiento se compromete a llevar a cabo una política más pragmática de eliminación de todo tipo de barreras que aún impiden la plena normalización de estas personas, todo ello teniendo en cuenta las recomendaciones de los representantes autorizados de las Personas con Discapacidad.

2.- Este Ayuntamiento insta al Gobierno Central, al Gobierno Vasco y a la Diputación Foral de Gipuzkoa para que aporten la dotación económica necesaria para hacer frente a esta situación.

3.- Este Ayuntamiento insta al Gobierno a presentar cuanto antes en el Congreso de los Diputados el Proyecto de Ley sobre autonomía personal y protección de personas dependientes en base al cual se establezca un Sistema Nacional de Atención a quienes padecen este tipo de situaciones y esté garantizada la participación de las Corporaciones Locales con el apoyo del Gobierno de la Nación y Comunidades Autónomas.